

Saratsola eta (aitzin)euskar(ar)en geruzak

Joseba A. Lakarra

UPV/EHU

Laburpena

*Konparatistaren egiteko nagusietarik delarik kronologiarik sendoena erai-
kitzea, are premiazkoago dirudi egiteko horrek barne-berreraikitzailearen-
tzat. Euskalaritzan, ordea, kronologia gutxi landu da, nahiz maileguen az-
terketak alderdi honetan ere —berreraiketa osoan bezala—, pisu handia izan
eta bide-urratzaile gisa erabiltzeko aukera paregabeak eman. Mailegaketak
eman informazioaren ustia ketak, ordea, muga ezagunak ditu eta ezinbesteko
zaigu ondare zaharraren azterketarako irizpideak lantzea, ikerketak aurrera
egingo badu. Horregatik, hemen —omenduaren deituraren analisi etimolo-
gikoaren adibidea baliatuaz—, Euskal Herrian ekanduak ez diren hainbat
hurilketa ezberdinen (alternantzien, forma kanonikoaren, tipologia diakro-
nikoaren, gramatikalizazioaren...) aukerak aurkezten ditugu artean burutu
baino berreraiketa sakonagoa eta kronologia finago eta aberatsagoa gara-
tzeko. Tarteka, AEZ eta AEMren edo honen eta EBZren arteko zenbait ge-
ruza markatu dugu ohiko periodizazioa osatzeko asmoz.*

Peut-être apparaîtra-t-il ainsi que la fixation d'une chronologie devra être la préoccupation dominante des comparatistes (Benveniste 1935: 1-2).

todo estado de lengua es un sistema ordenado que por su misma ordenación conserva registrado un mensaje que el paso del tiempo vuelve borroso e ilegible (Mitzelena 1963: 11).

Ni ez naiz poeta bat. / Ni bertso asmatzaile naiz, /
poema egile, / edo hobeki, / poema konstruktore

(*Poemagintza* 1969: 19)

0. Sarrera*

0.1. Ibon Sarasolaren gogoeta-gaien artean denboratasuna, aldakor-
tasuna eta holakoak diren ez dakit. Halere, zalantza gutxi dut hizkuntza-

* MICIN-eko «Monumenta Linguae Vasconum (IV)» [= FFI2012-37696], «Lingüística histórica e historia de la lengua vasca» Eusko Jaurlaritzaren Talde Konsolidatua [GIC.IT486-10] eta UPV/EHUren UFI11/14.

Laburdurak: AEZ = aitzineuskara zaharra; AEM = aitzineuskara modernoa; EBZ = Euskara Batu Zaharra; IE = (hizkuntza) Indoeuroparrak.

ren alderdi horien ikerketan, —horretarako gogo berezirik gabe, behar-bada—, mesede handienetarik egin duela euskal alorrean. Hots, helburu garrantzitsuago eta praktikoagoetarako edo eratuak diren hiztegi sarrearen alde batean, diskretoki, zifraren bat («1571», «1596», «1643», «*1745»... «**1977»...) kokatuaz, euskaldun eta euskaltzale askoren eta are euskalari zenbaiten hurbilketa eta jokamoldeak aldatu, aberastu, dituelakoan nago. Berak hori eta beste hobari gehienak *Orotariko Euskal Hiztegiaren* presaltanei zor zizkiela aitortu arren, —baina nork irakurriko filologia industrialaren ekoizpen erraldoi hori?—, euskararen hiztegi gintzan, are apeta historizistarik nimiñoena ez duen jende zintzoaren artean ere, Sarasolaren *Hauta-lanerako euskal hiztegia* (1984-1995), *Euskal hiztegia* (1996) eta «Euskal hitz altxorraz» (1997) mugari bilakatu dira: geroztik, hainbat jende ohartu da euskal hitzez ere, —lehenago edo beranduago euskal hotssez, euskal «deklinabideaz», euskal adizkiteziaz eta euskal esaldiez bezala—, ez direla betidanikoak eta betierekoak.¹ Aitzinamendu larri horrek, halere, ez dio filologiari bere egitekoa barkatzen eta orain lehen bezain garrantzitsu edo ago da lekukotasunak pisatzea² eta kokatzea,³ berriro ere bete dezaten historiaren eraikuntzan dagokien egitekoa.

0.2. Ohituak gara euskal lexikoaren zahartasunaz eta aldaezintasunaz txepelkeria askotxo irakurtzen zaletuen eta are grinatuen aldetik, uniformitarismoak euskal hizkuntzalaritza historikoan edo «euskal ikasketetan» ondorio saihestezinak dituela usnatu ere gabe. Antropologoen, arkeologoen, historialariek edo bestelako zientzialariek —hizkuntzalaritza eta filologiaz landakoek, jakina—, erabaki omen dute, esaterako, *haitz* eta bere familia ez dakit neo-, meso- ala paleolitikoko ditugun, horrenbestez eta bide batez «euskarari» ere aintzinasun hori emanaz.⁴ Ustekizun honek modu oro-

¹ Orotarikoak edo nonahikoak ez zirela bazekien aita Larramendik bere hiztegiaren hitzaurrean eta gaztelania garbian zioenean ez ziela berbei jatorri markarik jarriko (gero Azkuek egingdakoaren alderantziz), eta horrela giputzek, bizkaitarrek eta enparauk, —beren lurraldekoak zein ziren ere ez zekitelarik—, guztiak erabiliko zituztela, haien ezjakintasunak beren separatismoa gaindituaz.

² Larramendiren Hiztegi Hirukoitzaren (*HH*) lekukotasunaren balioaz oraindik ere hitzegin beharra euskal filologiaren atzerapenaren edo euskaltzaleen alperkeriaren eta topiko-zaletasunaren isla baino ez da. Astirik bagenu, ezkontza klandestino bateko *alaroza* eta *HH*ko «dote, *alagoza*»-z hitzegingo nuke —nahiz Satrustegi apaizarentzat < alabatzat > irakurri behar omen—, edota Barrutiaren *kaltxapotak* bakarraren horko kideaz. Aski izan bekigu Blanca Urgellen tesiko (2000) *HH*ren iturrien azterketa bikain (baina, zorigaitzez, bukatugabera) bidaltzea.

³ Esaterako, Leizarragari eta Etxepareri esleitu lehen lekukotasun asko berresleitu beharra dago *RS* eta gainerako errefrau bildumak argitalpen edo bilketa-data baino 100 edo 125 urte lehenago kokatzean, beren hizkuntza egoerari dagokion moduan; cf. Mounole & Lakarra (argitaratzeaz) eta Blanco (2014). Antzeko ondorioetara iritsi zen Mounole (2011) sintaxititik abiatuak.

⁴ Ez dugu aukerarik, —baina nago ez dela beharrik irakurleen bat baino gehiago oroituko baita—, duela zenbait urte euskaraz eta Euskal Herriaz zabaldu zen «7000» urteko aintzinasunaz; hizkuntzalari batentzat, bederen, galdera zera da, zergatik ez «17000» edo «70000»? Matriarkadoari buruzko siniskeriek ere, ez dakit nola iraun lezaketen indoeuropar kideen hain an-

kor batean ez du erantzun partikularrik merezi (horretarako dira hizkuntzalaritza historikoko eskuliburuen sarrerak edo Gorrochateguiaren 1998 eta 2001ko ohar egokiak) baina nahiko genuke labur-labur erantsi bibliografian aurkitu ez dugun eta gaurko egitekoari barru-barrutik lotu arrazoiketaxoa: Mitxelenak (1950: 201) zioen legez, —eta bazuen uste horretarako sostengu nahikorik—, *haitz* < **anetz*/**anitz*-etik baletor, hitz horren forma hori -*n*- > -*h*- eta **h*₂ > *h*₁, erregelen ondokoa genuke, hots, gehienez ere akitaniera ondokoa eta EBZ aurrekoa, K.o. IV-V. mendeetako edo, beraz.⁵ Gainera, miraria edo ia miraria genuke hor bukatzea **anitz* bati buruzko esan beharrak bere amaierako -*i*- eta -*tz* horiekin (gehi *V*- horrekin), besteak beste.

0.3. Zorigaitzez, kronologiaren peitu ez da soilik hizkuntzalaritza «prezientifikoa»: aurreko lanetan (Lakarra 2003, 2011a, 2013a, etab.) markatu bezala, Mitxelenak proposatu etimologiaren artean begiratzen badugu —ikus, demagun, Arbelaiz (1978)—, ohar gaitzezke garaikide edo gramatika berak sortutako ezin izan litezkeen ugari direla, aitzin-morfema bisilabo eta polisilabo, bokalez zein kontsonantez hasi, kontsonantez nahiz bokalez amaitu, barneko talde kontsonantikoekin edo gabe.... baitira bertan. Guztiak edo gehienak «ongi» direla esan behar dut, —«oraingoz bederen», hots, etimologia-hipotesi onekin gertatu bezala, hoberik ez den bitartean—, baina horrek ez du kentzen ezinbestean berrikusi beharra, Benvenistek (1935: 147-148) Ierako aldarrikatu eta hainbatetan aipatu ditudan arrazoi bertsuengatik. Labur esanda, **ardano* edo **enazur* ezin izan litezke helmuga, gehienez ere abiapuntua, euskara zaharrean forma kanonikoa bisilaboa zela Mitxelenak legez (1977, 1979) uste zuenarentzat.⁶

1. Geruzak euskararen eta hizkuntzen historian: zenbait ohar

1.1. Gauza ezagunegia da errepikan ibili behar izateko euskal lexikoaren (eta fonetikaren, morfologiaren, sintaxiaren) azterketa diakronikoan mailega-

tzeko diren *errain* edo *arrebaren* analisiaren ondotik (cf. Benveniste 1969 eta Lakarra 2011a), baina, baina oraingo honetan kronologiarekikoak dagozkigu eta, beharbada, «dukiari» buruzkoak bezain ikusgarriak ez direnez, utz ditzagun beste baterako.

⁵ Erregela horien datazioa edota EBZ-rena ez da oraindik nahi bezain zehatza —1981ean genekienaz azken arteotan zerbait aurreratu (cf. Lakarra 2014a)—, baina akitaniera (I-III. mendea) eta Erdiaroko lehen lekukotasun onomastikoen (X. mendea) bitarteko direla, behintzat, edozeinek onartuko bide du eta hori aski eta sobera dugu *haitz*-i doakionez.

⁶ Kontua larriagoa da, ez baita hitzen forma kanonikora mugatzen: zer berreraiki zuen Mitxelenak? AEM? Ala EBZ? Ala bien konbinaketa? Ala tarteko zerbait? Cf. Lakarra (2014a). Bideanar, bada lan horretan **ardano*-ren etimologia sakonagoa bilatzeko proposamen bat (**e-dara-dan-o*), Benvenistek eskatzen zuen bezala (cf. De Lamberterie 2000), izen hutsean gelditu gabe motibazioa bilatzen saiatuaz; **enazur*-en lehen zatiarentzat (baita, agian *belaun*-entzat ere) *berna*- proposatu izan dut, *b*- > \emptyset eta *rn-r* > *rl-r* > *lr* bilakabidearekin.

ketak izan duen garrantzia (cf. Mitxelena 1957, *FHV* 1974 eta Lakarra 2012).⁷ Haatik, komeni da gogoratzea berreraikitzailearentzat mailegaketaren garrantzi hori ez dela hainbat berez azaldu anekdotagatik, hor atera ondorioek ondare eta gramatika zaharragora eramateko aukerengatik eta horren ikerketarako izan dezakeen onuragatik baino. Horrela da munduan barrena hizkuntza asko eta askotarikoetan: maileguak lanabes garrantzitsuak dira, hainbat eta garrantzitsuago zenbat eta beste bidez ezin eskura litekeen informazio gehiago lortu; horregatik bilakatu zen pagotxa euskalarentzat (lan poxi batekin bada ere) historia hain ezaguneko latin-erromantzearen laguntza.⁸ Lat. *paceren* kide zaharrena *bake* dela jakiteak eta *pake* euskararen barneko bilakabide berantarragoa, *bake* eta *pake* euskal hitzen jatorria zein den finkatzea eta zein aldaera zaharrena... hori guztia interesgarria da, jakina, baina ondorio sakonago eta interesgarriagoak dakartza euskararen historiarako: 1) T- > D- (ahoskabe- > ahostun-) oraindik indarrean zen garai horretan; 2) D – T > T – T bilakabidea (1) baino berankorragoa (eta dialektalagoa) da.

Kontuan izanik AEM eta EBZren arteko ezberdintasunak eta EBZren zatiketa linguistikoki zehaztu gabe direnez (cf. Lakarra 2014a), bistakoa da honelako xehetasunen laguntza, anekdotetatik soa pixkat igotzean.

1.2. Aurrekoarekin dator ondokoa: mailegaketaren azterketa (batez ere geruza zaharrenena) ez da euskarari eta euskalariori norbaitek ezarri zigorra, baizik eta edozein hizkuntzaren historiaurrea argitzeko bidea (cf. Haas 1969), areago dena, munduko hizkuntza askok edo gehienek hortan dute argibide-iturri nagusia, ez baitute, —ezta hurrik eman ere—, euskarak baino lekukotasun zaharrago ez aberatsagorik (cf. Campbell 2011, 2013).⁹

⁷ Trasken (1998) uste zuen soilik lexikoan eta fonologian zela erdaren eragina, morfologia eta sintaxia betiereko garbitasun osoan gorde delarik. Mitxelenak mailegaketatik ateratzeko gehiena aterea zela zeritzon: «Hay, sin duda, más latín y más románico todavía, pero las riquezas ocultas son cada vez más escasas y hay que aguzar la vista cada vez más para descubrirlas» (1987c: 479). Ia 20 urte lehenago are zabalago ari zen gai honetaz, beren-beregi etimologiagintzari lotu saio batean: «Están, de un lado, los préstamos, de linaje latino-románico en último término en la inmensa mayoría de los casos; queda mucho por aclarar, pero es más bien cuestión de detalle y de precisión. En otras palabras, no iremos mucho más lejos del estado actual, salvo por lo que respecta al rigor y a algún que otro descubrimiento aislado que todavía pueda hacerse. En la inmensa mayoría de los casos, esto convertiría presunciones en certezas, pero las presunciones están ya presentes» (1970: 308).

⁸ Bitxia da, besteak beste, Villasanteren eta Mujikaren literatur-historietan (toki xelebrea, alajaina!) aurki litekeen Inperio Eskuzabalak euskal hiztun gaxoei egindako mesedearen kantua. Beren-beregi haietzako ez den arren, ez zait ahaztekoa iruditzen Mitxelenaren gogoeta: «A mí, sin embargo, que nunca creo haber sido extremista ni en un terreno ni en el otro, me resulta chocante que un autodeterminista busque un euskara con muy poca autonomía en lo sintáctico y prácticamente ninguna en lo léxico.» (1987c: 479).

⁹ Ikus Lakarra (2012); bertan aurkituko dira zeltaren historian (Jackson 1953), txineraren inguruko hizkuntzanean (Sagart & Xu 2001) edo komantxearenean (Casagrande 1954-55) maileguek izan duten eta oraindik duten egitekoa. Egunen batean dialektoen arteko mailegaketak ere ikertu beharko dira; urruneko paralelo bat aipatzearen, Melanesian (cf. Grace 1990) «hizkuntza aberrantetzat» deskribatu direnak ez omen ditugu familia barneko mailegaketek aitzinhizkuntzatik jalgi morfemei eragin lege fonetikoekiko salbuespen ugariak baizik.

1.3. Barne-berreraiketak berezko du kronologia erlatibo eta baita geruzak erabiltzea ere: *ardo*, *ardao*, *ardan-*, *ardâô* eta gainerakoen artean zein zahartzat eta zein berriagotzat duen beharko du erabaki eta baita multzotan bildu *-n-* > ... > *-n* eta *-V₃* > \emptyset pairatu dutenak berba honetaz landa gainerako hainbat familiatan ere.¹⁰ Beste batzuetan emaitza «nahasiek» eta «garbiek» salatzen dute fenomeno bat beste bat baino zaharrago edo berriago dela.

- a) *solo* / *soro* / *zoru*... :1) *l* > *r* berankorra; 2) errom. *s* > eusk. *s* (ez *z*) berankor baina (1) baino lehen.
- b) *baradizu* / *paradisu* / *paraiso*... :1) *b* > *p* berankor; 2) *-u* > *-o* berankorra.

1.4. Barneberreraiketaren jardunean oinarri nagusia alternantziatarik dator:¹¹ *x* morfemak *y* aldaketa-legearen bitartez bi alomorfo hartzen ditu, *x₁* (lehenagoko *x* soila) eta *x₂*, (aldaketa-baldintzak betetzean sortua).¹² Morfema asko ukitzen dituenean aldaerak, geruza zabala sortzen da; gogora, adibidez, latineko bokal laburren emaitzak azentudun eta azentugabeko kokaguneetan (gazt. *puerta/portal*, *cierre/cerrar*, etab.). Lege berankorragoek, analogiek edo gainerakoek desitxuratzen ahal dituzte alternantziaren hasierako distribuzio eta balioak eta zail bilaka liteke familia bereko kide ziren elementuen berreraiketa formala eta funtzionala.

1.5. Euskaraz, adibidez, *gatz* eta *gazi*-ren arteko lotura semantikoa eta alternantziaren legea edozeinek antzeman lezake, —ez hainbeste *hats* eta *haserre*-ren artekoa—, eta, gainera, *corpus* > *gorputz*¹³ bezalako mailegu gardenak eta **naiza* > *naiz* (baina *naizateke* eta *balitz/lizate*) legezko kide morfologikoak ditu lagungarri. Zer esan, ordea, *hats*, *hatz* (cf. *hasi*, *hazi*) eta *hotz*-en aurrean? Azken honi tokatuko litzaiokeen **hozi* ‘hoztu’ ez da ageri (cf. B *otzitu* ‘hoztu’), baina, *OEHn* badira *hozi* ‘germen que brota de un grano’, ‘tallo en las lechugas y otras hortalizas’, ‘pedúnculo que nace en la raíz’ eta *hozitu* ‘germinar, brotar’, ‘endurecerse (las cebollas)’ eta ‘adormecer la dentadura’. *Hotz* hauekin elkartuaz, batetik lotura formala eta bes-tetik esanahizko hurbiltasuna aurkitzen ditugu; are gehiago, aurreko biak familia berean bilduaz, *bihotz* ere ez da orain horren bakar (cf. Lakarra prestatzen-1).

¹⁰ Inoiz geure hizkuntzan datu aski izan ez arren kronologia absolutoetarako, horrelakoak 2. graduan lor litezke kronologia erlatiboak erromantzeren bateko absolutoekin kateatzean. Cf. Chambon & Greub (2002) eta *-n-* < *-h-*: egile hauen arabera aldaketa hori dagoeneko v. menderrako gertatua zen aitzingakoieran.

¹¹ Ez dialektoen konparaziotik, hor zehar inoiz esan ohi den bezala; cf. «Internal reconstruction» (IR) is the exploitation of patterns in the synchronic grammar of a single language or dialect to recover information about its prehistory» (Ringe 2003: 245).

¹² Hau zuzenean loturik da fonemen eszizio librearearen ezintasunarekin, hots, metodo konparatuaren hatsarre oinarritzkoenarekin (cf. Mitxelena 1963).

¹³ *Magis* > *maiz* (ez ***maiz*) Mitxelenak azaldu zuen dagoeneko azentu propioaren faltaz.

1.6. Kronologia absolutorako laguntza handiena —ez bakarra—, idazkera eta testuek damaigute (cf. Campbell 2000). Pentsatzekoa da forma berria lekukotzen denerako aldaketa gauzatua dela eta, formen eta aldaketen lekukotze-hurrenkerak hizkuntzan bertan izan duten hurrenkerari lotuak diratekeela.¹⁴ Aldiz, forma berrienak ez lekukotzeak ez dakar hiztunen ahotan, ez zirela erabiltzen baieztatzeko segurtasunik. Hori da, esaterako, *-n- > -h- (>-θ-)* aldaketarekin gertatua Erdiaroko dokumentazioan: berandu arte ez da islatzen eta ezta gero ere beti, prestigiodun grafia *-n-*duna baitzen (lat. *Asinarius* > [aseâri] baina <Azenari>).¹⁵

1.7. Kronologia absolutoaren aldetik ere berri jakingarriak itzaroteko esku-biderik bada, baina batez ere kronologia erlatiboarenetik izan genezake esperantza handiena, segurtasun osoz esan baitezakegu agortzetik urruti dela, ia-ia hasiberritan, eta ondare zaharrari dagokionez ia hori ere ez; cf. /h/-aren ingurukoak Lakarra (2009b) lanean eta Egurtzegiren (2014: eranskina) orokorrak. Bestalde, geruzak eta kronologia ez dira soilik gertakari fonologikoen jabego pribatukoak, horien aukerarik eta beharrik morfologia¹⁶ edo syntaxian ere baita.¹⁷

1.8. Zehaztasun eta zertzelada gutxiagorekin, bada oraindik bide gehiago hizkuntzaren historiaurrean geruza haboro isolatzeko. Har dezagun, esaterako, hitz-familien gaia: hainbat hizkuntzatan, hitz-familien hedadura eta polimorfismoa erabili da delako erro batzuen eta hitz-eraketako prozeduren aintzinasuna neurtzeko:

¹⁴ Ez beti (batez ere corpusak orotara edo alderdiren batean urriak izanik); gogora Etxepareren adarrak eta xvii. mendearen hasierako adar-epaiketa bateko *adar-*en erabilera, berriena zalan-tzarik gabe: 'ikusten ez diren bekoki aldeko gizakien eranskin batzuk'.

¹⁵ Grafiaren azterketa zehatza emankorra ez ezik, ezinutzizkoa ere bada aldaketa fonetikoaren kronologia absolutorako: *RS*, itxuraz, ez da grafia-egokitasunaren paradigma: ez ditu bokal sudurkariak markatzen Garibaik bezala (baina honetan Garibai zen salbuespena!) eta ez du hark bezala proposamen zehatz bat (<sh>) txistukari apikari afrikatuarentzat (iruzkin berbera); areago dena, ohiko <s(s)> nagusiaz landa (2 *aberas*, 2 *aberassoc*, 6 *esea*...) beste hainbat grafia dira afrikatu horrentzat: <ts>, <xs>, <csh>, <shs>, <cshsz>: 338 *oshoa*, 211 *Iauxten*, 133 *ocsho*, 455 *vicshzdunic*, 263 *lotsaga*; bazuen, beraz, nola edo hala, soinu ezberdintasuna markatzeako gogoa. Alabaina, ez dut inon aipatua ikusi datu jakingarri bat: /n/ ondolik <s> dugu salbuespenik gabe, eta ez dirudi saiatu zenik —seguruena beharrik ez zuelako— hor afrikaturik markatzen. Landuc-cik guztiz bestelako bidetik ondorio berera garamatza: honek <sc> darabil grafia modernoko <tz> nahiz <ts>-rentzat baina grafia hori soilik bokalar-tean ageri da eta ez aztergai dugun kokagunean: «*esçeân asçeço aldeâ reues de la casa*», *işçaya* 'boyero', *bederasçi* 'nuebe' / *arç emea* 'ossa', *arçaya* 'ouejero', *çorçi* 'ocho' (*apud* Mitxelena 1958: 21). Hego-mendebaldean ere afrikazioa xvi. mendeaz geroztikoa dugu, beraz (ikus Lakarra 2014b).

¹⁶ Lakarra (2011b) lanean markatu legez, ondoko lau sailetan ilunago eta, horrenbestez, zaharrago dira (c) eta (d), lehen bietakoak baino: a. *gazi*, *atze*, *jale*; b. *harbel*, *gordin*, *zaldun*; c. *gogor*, *zelen*, *adar*; d. *lagun*, *gibel*, *samur*. Bistakoa da batzuen eta besteen artean morfologiazko hazkunde moldea aldatu egin dela eta baita hitz-familiena ere. Era honetako irizpideak betidanikoak ditugu hitz-sailen zahartasuna erabakitzeko.

¹⁷ Hondar sintaktiko ahaztu baten («X-ekin Y = X eta Y») adibideetarako eta bere garrantzi-rako berreraiketa sintaktikoan gehi balada baten jatortasunaren eztabaidan, ikus Lakarra (2008c) eta (2008b eta hh) zenbait multzo-aditzez (lehenago Traskek 1977 eta Gómezek 1994 hitz egin zuten aditzaren «garai inpersonalaz»).

[txineraz] word-families are of particular importance because, more than isolated words, word-families, especially well-diversified ones, may be suspected of being ancient in the language (Sagart 1999: 14)

[hausaz] I have tried to show that, with information on well-documented sound changes as well as recurrent morphological processes, it is possible to show a historical relationship between sets of words (which I have called «word families») which, on the face of it, and perhaps for speakers of modern Hausa, have little or nothing to do with each other. (...). Subsequent work in Hausa lexicography, comparative Chadic research, and refinement of our knowledge of sound changes have allowed us to identify word families in a more systematic, less schematic way. (...) to continue identifying such families as a way to probe the deeper elements of the Hausa lexicon and extend our ability to do more detailed and more reliable comparative Chadic research (Schuh 2013: 13).¹⁸

Euskaraz ere ondoko paradigmak familia eta hitz-eraketa prozedura eta bilakabide horien zahartasunaz mintzo dira (ikus Lakarra 2011a, etab.):

*dats	:	lats	:	adats	:	aldats	:	jatsi	:	arrats
*den	:	lehen	:	eden	:	ezten	:	eden	:	arren
*dur	:	lur	:	—	:	(h)andur	:	iurri	:	inaurri

1.9. Erro-ereduaren ikerketak ere geruza zaharragoak eta berriagoak bereizteko balia ditzakegu, esaterako IE hizkuntzalaritzan enbor atematikoak eta tematikoak (Fortson 2004: 78) edo txineraz (Sagart 1999) monosilaboak eta bisilaboak bereizten diren antzera; hau beren-beregi aldarrikatu zuen Uhlenbeckek (1942: 567)¹⁹ baina atarramendu handirik gabe, ondoko iker-

¹⁸ Henderson-ek (1976) Asia Ekialdeko hizkuntzetan oinarrituaz erakutsi zuen hizkuntza isolatzaile zenbaiten ezker aldean badela lehenagoko morfologia zaharragoaren aztarnarik: khasi hizkuntzarentzat «covert or vestigial prefixes» —«overt prefixes» eta «prenominal and preverbal particles» direlakoekin batera (481. or.)—, ikusi zituen, «interesgarrienak ikuspuntu historiko eta konparatutik» (ibid.) bere hitzetan. Bere lanaren ondorioztat 23 hitz-sare eman ahal izan zituen, hots, 23 hitz familia «with some semantic content in common, which it seems not unreasonable to suppose were also formerly linked through morphological processes of which now only fossilized traces remain» (516. or.). Honen arabera, hizkuntza hauetarako hitz soilak berreraiki ordez, —txikiak baitira, gainera, horrek dakartzan arrisku ezagunekin—, hitz-familiak berreraiki ohi dira, aski zabalak usu.

¹⁹ Cf. «(...) je crois déjà rendre service aux études basque[s] en tâchant de ramener les nombreux radicaux nominaux et les racines verbales de la langue basque restés sans analyse à quelques types déterminés, qui doivent, selon toute probabilité, être considérées comme pyrénéens occidentaux anciens. Je laisse à de plus compétents le soin de confronter les types pyrénéens occidentaux anciens établis par moi avec des types caucasiens ou autres. Pour le moment, il m'est indifférent de savoir si tel élément lexical —mot ou racine— possède ou non une parenté caucasienne plausible. Si pareil élément lexical correspond à un type ancien, il devra passer pour pyrénéen occidental ancien, sauf la possibilité qu'un élément non originellement pyrénéen occidental ancien d'importation ultérieure —mot ou racine— se soit rallié secondairement à un type pyrénéen occidental ancien. *Mais cette question est sans importance pour mes investigations, puisque*

tzaileek lan hori batez ere bizkaiera eta gainerako dialektoen jatorri ezberdintasunari aurre egiteko aipatu baitute, nahiz bertan garrantzi apala izan gai horrek. Hara, ondoren Lakarraren (2009b) lanetik hartu lekukotasun gehien dituzten hamar erro-ereduen analisia:²⁰

1. TAULA

E.ered	Litez.	Lek.	%3/2	Et.Ez.	%5/3	%5/2	Hond.	%8/3	%8/2	Mail.	%11/3
CVC	325	152	46,76	70	46,05	21,53	48	31,18	14,76	12	07,89
TVRV:	600	195	32,50	25	13,07	04,33	04	02,05	00,66	95	48,71
TVT	900	190	21,11	16	08,42	01,77	00	00,00	00,00	80	42,10
aCVC	425	110	25,88	33	30,00	07,76	15	13,63	03,52	16	14,54
TVSV:	600	95	15,85	14	14,73	02,33	03	03,15	00,50	47	49,47
mVCV:	425	94	22,10	12	12,76	02,82	00	00,00	00,00	47	50,00
aCCV	215	82	38,13	12	14,64	05,58	04	04,87	01,85	15	18,30
SVTV:	300	75	25,00	13	17,33	04,33	04	05,33	01,33	28	37,33
SVRV:	200	71	35,50	05	07,04	02,50	01	01,40	00,50	27	38,02
RVTV:	300	69	23,00	09	13,04	03,00	01	01,44	00,03	36	52,17

Labur, eredu bakoitzeko «%8/2» (hondarrak zati izan litezkeenak) eta «%11/3» (mailegatuak zati lekukotuak) erkatzen baditugu, halako ispilu-irudia aurkitzen dugu: zifra apalak dituenak batean, —eredu bisilabiko guztiek, aCVC salbu—, gorak ditu bestean (aCVC eta aCCV lekat, bisilabo guztiek) eta alde-rantziz. Honenbestez, nabarmena da eredu bisilaboen berritasuna, eta beharbada aCVC-ri antzinatasun handixeagoa aitortzea ikertu beharko genuke.²¹

1.10. Kurylowicz-ek gramatikalizazioa «morfema lexiko izatetik gramatikalizatara edo gramatikala denean gramatikalago bihurtzea» definitzen du (cf. Heine 2003; Heine & Kuteva 2002; Joseph 2001). Bistakoa da hor fe-

je recherche non pas des étymologies, mais des types. Des éléments d'origine étrangère secondairement assimilés à d'anciens types indigènes contribuent, eux aussi à affirmer l'existence de types anciens» (Uhlenbeck 1942: 567 [Etzanak neureak dira, JAL]).

Ezin da ahaztu, orobat, egileak ideia bitxiak zituela hizkuntzen poligenesiaz eta, bidenabar, Boasek, Schuchardtek edo Tovarrek bezalatsu (cf. Lakarra 2003).

²⁰ Beren esangura urriagatik, alde batera utzi ditugu litezkeenei buruz %10 lekukotasunetara iristen ez direnak. Legenda: *E.ered.* = «erro ereduak», *Litez.* = «Izan litezkeen erroak», *Et.Ez.* = «Etimologia ezezagunekoak», *Hond.* = «Hondarrak (iragazki geografikoak eta fonologikoak gainditzen dituzten etimologia ezezagunekoak)», *Mail.* = «Maileguak».

²¹ Aurreko lanetan gogoratu bezala, kontuan izan bedi «etimologia ezezagun» sailetik (eta, beraz, «hondar» izatetik) astiro-astiro «mailegu» edo «eratorri-konposatu» izatera igaro ohi direla bisilaboak eta, horrenbestez, beren erro-ereduei lehenago aitortu zahartasun urria are exkaxtenago doakia. Monosilaboetan, aldiz, nekez gertatzen da horrelakorik eta, gainera, benetako hondarrak taulan agertu halako bi edo dirateke euskara historikoan lekukotutako erroak hartu beharrean bererriketa estandarren bitartez erdietsi guztiak (*-bel*, *-thor*-, *-khar*-, *-bil*-, *-dun*-, etab.) hartuko bagenitu.

nomeno honekin lotu ohi den direkzionalitatearen arazoa (baina cf. Haspelmath 2004) eta jakinak dira, orobat, prozesuak berarekin dakartzan funtzio gehiketa eta fonetikazko zein semantikazko urritzea. Hara, esaterako, erakusle > artikulua (ikus Manterola prestatzen) edo *ahal*-en zenbait bilakabide: ‘ALag’ (*etorri ahal da*) → ‘oxala’ (*hilko ahal da*) → ‘baiezko/ezezko galdera marka’ (*al/ø*).

Azken urteotan gramatikalizazio fenomeno bakarra ala beste zenbait bilakabide ezagunen ondorio edo epifenomeno den eztabaidatu da; badirudi gehienak bigarren hurbilketaren aldeko direla (cf. Campbell 2013). Halere, Josephhek (2001: «Is there such a thing as «grammaticalization»?») eta beste askok aitortu bezala, gramatikalizazioaren azterketa oso emankorra izan da hizkuntza aldaketa ulertzeko eta are berreraiketarako lanabes gisa; horregatik euskalaritzan ere eman izan zaion baino arreta gehiago merezi bide du:

During the past two decades, the revived interest in grammaticalization phenomena has firmly established itself as one of the most flourishing branches of historical linguistics (...) it would seem that grammaticalization ‘theory’ provides the principal framework to account for the origin of and changes within grammar and hence a forceful tool for reconstruction (Fischer, Norde & Perridon 2004: 1).

Beharbada, mesederik handiena izan litezkeen berreraiketa aukerak mugatuaz egin dezake,²² batez ere direkzionalitatearen bidez gidatuaz bilakabidearen azterketan. Baina, urrutiago ere jo dezake eta aldaketa kate batean katebegi batetik beste(e)tara diren jauzi onargarriak²³ markatu eta prozesu osoaren barnean alomorfo bakoitza nontsu den ere erakuts diezaguke.²⁴ Har

²² Eta baita kanpoko paraleloak gogoratuaz analisi berriak ekarriaz ere, are gehiago euskarazko datu askoren azterketan hasikinetan garelarik. Inoiz «l’embarras du choix» delakoaren aurrean ere jar gaitzake baina, arriskuak arrisku, asko da hurbilketa honek emateko duena (ikus Lakarra 2013b).

²³ Esaterako, ez da onargarri *etxe*-ra → *e-ra-bil-i* (atzikiz → aurrizki) inoiz esan izan den bezala eta bai *i-ron* > *e-ra*-CVC (ALag → Aurr). Dakigunez, *-ra* atzikiz bizia da «deklinabidean» eta aspaldi fosildutako aurrizkia aditzean. Hara iruzkin asko behar ez duen «Change of an affix from suffix to prefix in an SOV language. This change does not seem attested and will not be discussed» (Jacques 2013: 191). Bestalde, SIT [**dar*] > ASP EZBURUTUA / LOKATIBOA kate zabal ezaguna da, baina ez SIT > KAUSATIBOA; horrenbestez, euskarazko *ra*- eta *-ra* horien hoskidetasuna halaber hutsa da eta *ra*- KAUSATIBOA beste nolabait azaldu beharra dugu (cf. Lakarra 2013b).

²⁴ Gramatikalizazioak, etimologiagintza osoa konpontzeko gai izan ez arren, direkzionalitateagatik, batetik, eta nolabaiteko holismoagatik, bestetik, artean ez bezalako aitzinamenduak ekar ditzake aldaketa semantikoaren ezagutzan, non eta hizkuntzaren muin den gramatikarenean: erakusle > artikulua, aditz nagusi > laguntzaile, aspektu > denbora... dugularik gainerako hizkuntzetan, *dator* edo *dakar*-en *da*- aspektua ala denbora genuen erabakitzea ez da zaili, batez ere fonologia (**d-* > *l-* falta) eta testuen irizpideek ere Trasken alde (ASP) eta De Rijken kontra (DENB) argiro mintzo direnean (cf. Lakarra 2006a). Orobat, Kaledonia Berriko gure antipodeta-koetarik hasi (cf. Lichtenberk 1985) eta hainbat hizkuntzatan izanik aditzetako nahiz izen sintag-

ditzagun *lotsati*, *goseti*, *beldurti* eta gisa bereko adjektiboak; *-ti* atzizki horrek badu *-di* alomorfo bat Euskal Herri osoan, nahiz enbor gutxi batzuei loturik: *handi*, *hordi*, *geldi*. Hondarren irizpideagatik ere («fase sparita») azkenok lehen hirurak baino zaharragoztat jo beharko genituzke; haatik, Mitxelena-Trask legea²⁵ ere (-DV/-TV/-V alomorfoetarik lehena da zaharrena) gure alde dugu *-de/-te/-e* pluraletan edo *-gi/-ki* partizipioetan bezala, demagun; beraz, **din* ‘TO COME’-tik dator (cf. *jin* / *dadin*, etab.), kontinente ezberdinetako beste hainbat hizkuntzatan bezala (ik. Lakarra 2013b eta hango bibliografia) adjektiboak sortzeko lanabesik ezagunenatarik dugu.²⁶

2. *Saratsola*

2.1. Begitandu zait omenduaren deitura bera aski den adina dugula, zer-bait gogoetatzeko aitzineuskaren²⁷ geruzez. Gaiari lotuaz, *Saratsola* < *sa-rats* + *ol(h)a* denek onartuko bide dute. Bertsolariek ohi nola, atzekoz aurrera hasiko gara, *olha*-tik, alegia. Bidenabar, hemen (bestelako erreibindikaziorik gabe) *olha* horrela idatziko dugu arrazoi nagusi batengatik: /h/aren balio etimologikoa ezarria da (cf. Lakarra 2009a, 2009c, 2010 eta argitaratzeaz)²⁸ eta, beraz, hots hori daramaten morfemen azalpen diakroniko egokirako ezin ahantz edo ezkuta ditzakegu, ezta *olha*-rena ere. Horrenbestez, oztopo erantsi bat genuke, horrelakoren beharrik bagenu, lat. *aula* > *olha* bilakabidea onartzeko, Aita Lhandek sinatu hiztegian proposatu bezala, nahiz aurretiaz ere, azalpen horrek egiantz exkaxa zuen *Laudiok* edo *gauzak* (cf. gazt. *Llodio*, *cosa*) beren bokalismo latindarra gorde dutelarik (ikus, adibidez, Mitxelena 1974).

mako datibo marka eta are datiboko aditz laguntzailea edo «datibo etikoa»), (GIVE : eusk. **nin*) *indazu* eta gainerakoak azaltzeko merezi ote du euskaraz **nin* horretatik ala *jin* edo *egin*-etik abiatu behar dugun eztabaidatzea? Are gutxiago beren gramatikalizazio-sareak hain ezberdinak izanik (cf. Heine & Kuteva 2002); fonetikak, gainera, **n*-ren alde egiten duelarik: *-n* hori [*indazu*, *dinden*, etab.] ezin da C₂ izan CVC erroan; cf. **edun* → *du-gu* (ez ***dun-gu*), *eroan* → *daroa-zu* (ez ***daroan-zu*), etab. (cf. Lakarra 2006b, 2013b).

²⁵ Lakarra (2013b)-n Trasken izen hutsa eman banion ere, zuzenago dirudi Mitxelenarenarekin lotua agertzea lan horretan bertan eman *FHV*ko pasarteek adierazi bezala.

²⁶ Bidenabar, Lakarra (2013b) lanean nuen nuen (Dimmendaal 2011tik hartua) euskaraz zenbait animal-izenetan (*ardi*, *ahardi*, *idi*, *zaldi*) hain markagarri den TO COME-ren eratorri honen Afrikako paraleloren bat. Beste adibide bat: euskaraz hiru *-ga* izan ditugu noizbait: erg. sing., nom.-erg. pl. eta lokatibokoa. Zein ote zaharrena? Bistan da honetan fonetika eta tipologia (LOC → ERG, LOC → PL) bat datozela eta PL → ERG edo ERG → PL aurkitzen ez dugun bitartean LOC-etik abiatutako bi gramatikalizazio ezberdin —nahiz aski hedatu— ikusi beharko ditugula.

²⁷ Bat baino gehiago dira eta, izatez, lehentxeago aipatu EBZ ere haietarik dugu.

²⁸ Badaezpada ere, /h/-az ari naiz, soil-soilik, ez zenbait leherkariren aldaera hasperenduez; orobat, fonema honen balio etimologikoa aitortzeak ez dakar (gehienetan juxtu alderantziz) euskara historikoa *h* dugun kasu guztietan AE-n **h* genuenik, baizik eta —noizbait azaldu beharko diren salbuespen bakoitzean urriagoak salbu—, hotsen baten (**h* tarteko) jarraipen direla (cf. Janhunen 2007 uralikorako eta orokorrean).

2.2. Esanahiari dagokionez, *Apellidos*en (Mixelena 1973:s.u.) bi *olha* ditugu «1. ‘Ferrería’ en ronc. (*ôla*) y sul. significa ‘cabaña’», erantsiaz Euskal Herri osoan artzai-ekonomiako hau litzatekeela beharbada zaharrena; 2.a «suf. derivativo local» deitua (Azkue). Bigarren honetan, gehitzen du, «Sería naturalmente inútil en la gran mayoría de los casos tratar de determinar si *-ola* tenía un valor preciso de ‘cabaña’ o ‘ferrería’ o un sentido vago de lugar». *OEHe*k «1. Ferrería» eta «2. Cabaña, tienda de campaña» dakartza, gainerakoak (3. «caseta de aduana», 4. «celda», 5. «sitio donde vivir», 6. «edificio») adierarik zaharrena bilatzeko orduan garbiro baztergarriak direlarik.

Izango dugu aurrekoa zehaztu eta atzerago jotzeko aukerarik; horretarako gogoan izan bedi Mendigatxaren lekukotasuna: «Gázta egiten da *ôletan*; *ôla* da *kabaña* eta *xaxgu urteoro egiten deina*» ([etzana nirea, J.A.L.], *apud OEH s.u.*).

2.3. *FHV*n —bokal arteko *l* > *r* faltaz ari delarik (§16.9)—, *alha*, *ilhe* eta *olho* (*alhaba*, *alu*, *ilhun* eta *olha* 1957: §15-n), ondare zaharrekotzat ditu egileak («fondo antiguo de la lengua»). Modu orokor batean hitzeginez, ordea, VC(h)V egiturek euskararen garai historiko zaharrenetakoak eta AEko geruzak izateko aukera urria dute eta Mitxelenak iruzkinduetarik, beharbada, *ilhun* da mailegu ez den bakarra (cf. Lakarra argitaratzeaz). Hara duela urte batzuk egindako lehen hurbilketa baten emaitzak:

2. TAULA

E.ered	Litez.	Lek.	%3/2	Et.Ez.	%5/3	%5/2	Hond.	%8/3	%8/2	Mail.	%11/3
CVC	325	152	46,76	70	46,05	21,53	48	31,18	14,76	12	07,89
TVT	900	190	21,11	16	08,42	01,77	00	00,00	00,00	80	42,10
aCCV	215	82	38,13	12	14,64	05,58	04	04,87	01,85	15	18,30
aCV:	85	64	75,29	04	06,66	04,70	02	03,12	02,35	14	21,87
uCV:	85	44	51,75	05	11,36	05,83	02	04,54	02,35	07	15,90
uCCV	215	45	20,93	06	13,33	02,78	00	00,00	00,00	07	17,77
oCCV:	215	39	18,13	08	20,53	03,72	06	15,37	02,79	10	25,63
oCV:	85	29	34,11	07	24,13	08,23	06	20,68	07,05	07	24,13

Lakarra (2009b) eta enparatukoetan diren iruzkinetan ez luzatzeko, esan dezagun bokalez hasi eta bokalez amaitzen diren hitzek hondar (h.d., etimologia ezezaguneko eta iragazki geografiko eta fonologikoak gainditzen dituzten) gutxi eta mailegu dexente dutela, nahiz lehendabizikoan TVT-k baino gehiago eta bigarrenean honek baino gutxiago, oso urruti CVC-tik batean eta bestean. Orain analisi hori berrikustean, etimologia ezezaguneko taldetik (eta, beraz, hondarretatik) hainbat erori eta maileguetan (adib. *alu* < lat. *aluu* ‘ventre ou plutôt cavité intestinale (de l’homme et des animaux)’ eta ‘uteroa’ ere [Ernout-Meillet, s.u.]) eta eratorri-konposatuetan kokatzen dira (*etse*, *otso*, *atso*, gutxienez). Lehenago hondarren kopuruak urriak zirelarik, oraingoak are urriago eta, beraz, egitura hauen zahartasun-aukerak beste hainbeste.

2.4. Gauzak horrela, forma kanonikoan oinarritutako edozein azterketatan bezala, delako erro egitura horrekin bat ez datozenentzat (oro har, forma kanonikoa baino handiago diren morfementzat) bi analisi-bide ditugu: edo eratorri-konposatuak dira edo maileguak (cf. Mitxelena 1963). Eratorri-konposatua izateko ez da ikusten nola bana genezakeen hondarrik utzi gabe eta aldaketa *ad hoc*-ak saihestuaz, zati ezagun txikiagoetan; horrenbestez, oso egiantzekoa da mailegaketa-bidea urratu beharra.

2.5. Lakarra (2014b) lanean erakutsi dugu *alha* (< *halà*), *elhe* (< *helè*), *ilho(ba)* (< *hilòu*), *olhe* (< *hole*), *olho* (< *houlhòu*), *unhatu* (< *houñe*), *unhil* (< *hounil*), *orhoitu* (< *horehèyt*) eta beste dozenaren bat hitz gaskoiko hVRV- batetik (R = edozein ozen) VRhV- batera igaro dela euskaraz. *Olha*-ri ere antzeko azalpena komeni zaio, bai formaz, bai edukiz: cf. gaskoizko «*hoelhà*: sm. Feuillage, les feuilles»; «*hoelhà*: v. Feuiller, placer, poser des feuilles» (Palay 1991, s.u.) eta urrutixago berebiziko interesa duen frantses zaharreko *foillie* ‘cabane de feuillages’ (Rey 2006, s.u. *feuille*). Nabarmena da «eraikuntza arina», harri eta oholik gabekoa zela hasiera batean (cf. §2.2ko Mendigatxaren lekukotasun argia Erronkariko arestiko usadioaz), erromantzeko kideek iradoki bezala.²⁹

2.6. *Saratsola*, beraz, ‘saratsez egindako mendiko aterpe arina’ genuen (*olha*-ren adierarik zaharrenetakoa, bidenabar), *Egurrolha* egurrez egindakoa dugun bezala eta *Harriolha* (beranduago) harriz egina; *burdinola*, aldiz, ez da ‘burdinaz egindakoa’ baizik eta ‘burdina egitekoa’ eta beste haiek baino berriagotzat jo behar dugu nahita nahiez.

2.7. Formari doakionez, *Saratsola isats*, *sinets...*, *solas*, *sasoi*,... bezala dugu eta, batez ere, *sa(i)hets*-en pare-pareko (< **sa-her-tz*, *-i*- erantsiarekin *aihotz* edo *oihu*-n bezala; ikus Lakarra 2009a, argitaratzeaz); hots, erro bisilabikoetako kontsonante homorganikoen aurkako hatsarriaren adibide. Dakigunez, hatsarri bera daukagu dardarkarietan ere, baina kontrara gauzatua, disimilazioaren bitartez, ez asimilazio absolutoaz: *eruR* > *eluR* / *eduR*, *beraR* > *bedaR*, *belar* ... Izatez, erregela hau silaba/erro barruan hasi bide zen (*zotz*, *sats*) eta gero hedatu bisilaboetara, erro monosilaboak bisilaboetara igaro zirenean, bidean (*t)s* – (*t)z* zein (*t)z* – (*t)s* kontsonante homorganikoak (*t)s* – (*t)s* bilakatu zirenean; cf. Etx. *çinhexi* > *sinhetsi*, Beraz, **s* – *ts*, **s* – *tz* edo **z* – *ts* izan zitekeen (cf. *FHV* §14.3, Lakarra 2011a).³⁰

²⁹ Ez dut aipatu gabe utzi nahi erronkarieraz *òla*-k duen bokal sudurkaritasuna; ez du, ordea, horretan laguntzen zubererak eta ez honek eta ez BN-ak ez dute ohiko *on* > *un* bokal igoerarik; horrenbestez, ez zait batere segurua iruditzen datu horretatik barneko silabaren batean *-n* > \emptyset berriariki litekeenik, *ària* edo *âr*-ekin gertatu legez.

³⁰ Erregela honek Erdiario akabuan eta Euskara Arkaikoaren garaian ere bizirik zirauen eta, hortaz, erroen bisilabikotasunerako bilakabidearekin lotua delarik, azken honek ere berankorra dirudi, hots, AEM eta are EBZ baino beranduagoko. Erro-ereduen azterketan ere (cf. Lakarra 2003, prestatzen-2 eta hemen §2.3) ezaguna da zeinen bisilabo etimologiagabe gutxi ditugun (are iragazki gisa dialekto modernoak oinarritzat harturik), oso bestela eta urruti CVC-rekin gertatzen denetik.

2.8. *Sarats*-en azterketan gorago jotzeko egoki dirudi *sabel*, *sa(i)hets*, *samur* eta *samin*³¹ bezalako CVCVC egiturekin erkatzea; hauetan CV aurrizkia eta CVC erroak isolatu dira: cf., hurrenez hurren, *gibel*, *orbel*, etab.; *labur*, *urri* (< **bur-i* ?); *min*, etab. Itxuraz, *sa-* horrek badu ‘barne’ esanahi bat batetik eta, bestetik, badirudi hurbilagoko garaietako hizkuntzan adjektibotzat joko genituzkeela CVC gehienak edo CVCVC eratorriak eurak.³²

Orain artekoa gogoan, **sa-latz*-era iristen gara (eta baita **sa-her-tz*-era ere *sa(i)hets* kidean) bi zatiek betetzen dituztelarik gainerako *sa-CVC* lagunek betetzen dituzten propietateak. Análisi berri honekin, Erro Monosilabikoaren Teoriak (Lakarra 1995 eta hh) erakusten du baduela oraindik gaitasunik, bai lexikorik zaharrena aztertzeko eta baita historiaurreko gramatikaren zantzuak berreskuratzeko ere.

2.9. 1995-2000 urteko lanetan erreduplikazioa bai baina aurrizkiak ez genituen aipatzen AEren hitz-eraketarako lanabes gisa (cf. Gorrochategui & Lakarra 1996 2001); ondokoetan, ikusirik CVC-tik abiatu eta *-C > ø* sistematikoa ezin onar genezakeela Erdiarora arte edo, *sa-*, *la-*, *gi-* eta bes-teren autonomia falta eta are benetako erroei dagozkien tasunak peitu zituztela, ondorioztatu genuen ez erro-bikoteen (beraz, konposaketaren) bai-zik eta aurrizkien (deribazioaren) aurrean ginela; horrek berarekin zekarren AEZaren tipologiazko irudian aldaketa larria (cf. Lakarra 2005, 2006a eta hh).

2.10. Aurrizkiak eta erreduplikazioa oso zaharrak dira, noski, eta biak AEZekotzat jo izan ditugu aurreko hainbat lanetan (cf. Lakarra 2011a, adibidez). Esaterako, *gogor*, *odol*, *ahal* edo *zezen* baditugu (*gor*, **dol*, **nal* eta **zen* erroetarik, hurrenez hurren) baina ez ***lulur* (> ***lurur*), ***lalar* (***larar*) edo ***lalan* (> ***laran*), *lur*, *lar* eta *lan* erroetarik.

Mitxelena AEren bere berreraiketa-sistema (= AEM) baino lehenagokotzat zuen **d-* > *l-* aldaketa³³ gogoan hartuaz izan genezake honen azalpena: ez dugu *IV₁IV₁C* (> *IV₁rV₁C*) formarik *l-* sortzeko **d-* > *l-* gertatu baino lehen erreduplikazioa agortua zelako hitzberrien eraketa bide gisa.

Maileguetan ere ez da erreduplikaziorik gertatzen, ezta zaharrenean ere —*bake* → ***babake*, *meza* → ***memeza*, *liburu* → ***liliburu*,

³¹ Beharbada baita *sagar* [< **sa-gor*; cf. *hazkar* < *hazkor*] eta *sakon* ere. Alabaina, **kon* CVC ez da isolaturik, dakidanez, hitz honetatik kanpo (**gon* ote?) eta hortaz triangulazio etimologikoa ez da asetzen; cf. Zorc (2001) eta Lakarra (2003).

³² Ricardo Gómezek gogoratzen didanez, honek adjektibo-kategoriaren sorrerarako badu interesik; alde horretatik jakingarria iruditzen zait Dixonen (1977) adjektibo eskalan goiko parte-koak direla, koloreak bederen.

³³ Nik dakidala ez zuen hori inoiz esplizitatu baina bai 1957-n (§6) eta baita *FHV*n diosku, batetik, soilik orainaldiko adizkiak direla *d-* batez hasten direnak, eta bigarrean (§12.19, *akabuan*), *-doi* (> *-dui/-di*) atzizkiaren eta *lohi*-ren arteko lotura markatu ondoren, «la admisión de este cambio con carácter regular permitiría comprender cuál ha sido el destino moderno de la antigua oclusiva apical lene en posición inicial» dio.

gauza → ***gagauza*, etab.— eta, beraz, euskara eta latina kontaktuan sartu baino lehen³⁴ AEren gramatika ezaugarri hau agortua zen.

Orobat, *sa-bel*, *sa-mur*, *sa-min*, *gi-bel*, *gi-har*, *gi-zen* eta *la-bur*, *la-bar*, *la-bain* analisatzea zilegi da baina ez dugu (oinarri mailegatuekin) horien pareko izan zitezkeen ***sa-berde*, ***la-gris* edo ***gi-busti-rik*, demagun; hortaz, aurrizkiak ere ez ziren hedatzen dagoeneko erro eta familia berrietara euskara eta latinaren kontaktua hasi orduko (ikus 42 oharra).³⁵

2.11. Direlako bi fenomeno hauen kronologiaz bistako «mailegaketa la-tindarra hasi baino lehen agortuak ziren» baino gehiago ere baieztatzeko, beharbada. Horretarako, **dVC*, **nVC*, **zVC* edo **gVC* erro-ereduetako erre-duplikazio adibideak izan arren, **IVC-renik*³⁶ ez dugula kontuan izanik, gertakari hau **d- > l-* aldaketa fonetikoarekin lotzea bide dugu azalpen egokiena. Hots, **dVC* ereduaren erreduplikazioa bizirik zeneko adibideak ditugu baina ez **IVC-renak*, **d- > l-* jazo gabe zelako erreduplikazio-sistema agortu zenean: beraz, bilakabideok 1) erreduplikazioa galdu, 2) **d- > l-* hurrenkeran ditugu.³⁷

Horago (cf. *sarats*) *sa-* aurrizkia **d- > l-* ondoren ere bizirik zela proposatu dugularik, erreduplikazioaren galera aurrizki(ar)ena baino zaharragoa dela ondorioztatu behar genuke, **d- > l-* tartean kokatzen denez. Honenbes-

³⁴ Are zeltarekin ere, nahiz honen mailegu zuzen gutxi diren oso; cf. Mitxelena (1964: 5. atala) eta Gorrochategui (1987). Ez dakit zeltatik hartutako hainbat geruza direla baieztatzeko zertan oinarritzen den Koch (2013), ez bada Forni (2013) eta aldizkariaren argitaratzaileari kontso-lamenduren bat bilatzea. Ikus Gorrochategui & Lakarra (2013) Forniaren proposamen bitxiez; leku horretan bertan badira erkaketa IEren aldetik begiratuaz astinaldi erantsia ematen diotenak ere.

³⁵ Gero ere (cf. Lakarra 1997), ondare zaharreko zenbait atzizki (*-tasun*, demagun) soilik erro ez-mailegatuekin konbina zitezkeen (eta orobat, alderantziz, *-zio* eta beste hainbat soilik oinarri mailegatuekin). Ikus orain Euskara Arkaikoaren lexikoaz orokorrean eta eratorpenaren inguruko antzeko gaiez Blanco (2014).

³⁶ Egia da **TVC* asko ere ez dugula, ustez, baina badira *akats* eta (*k*)*okots* eta baita, agian, *atal* ere, *ate*-rekin zerukusirik ez badu, bederen; Corominasek (s.u. *tallo*) *talo*-rekin lotu arren, Agud eta Tovarrek dakartzaten *atal* guztiak, beharbada, *atari*-tik (→ *atal*, cf. *abere* → *abel*) sor zitezkeen.

³⁷ Inoiz «Martineten lege» izendatu izan den **Th- > h/∅* kokatzeak ere eman diezaguke launtzarik euskal morfologia zaharraren diakronian. Dakigunez, aditzik zaharrenek (*egin*, *ikusi*, *josi*...) **e-* (> *e-*, *i-*, *j-*) hartzen dute CVC-ren (eta inoiz beste [*-da-*, *-ra-*, *-dara-*] aurrizkiren baten) aurretik [cf. Lakarra 2008a], baina berriagoek ez dute horrelakorik: *saldu*, *haritu*, *gazi*. C₁-eko herskariak begiratuaz, *ekharr*, *ikhusi*, *ethorri* (eta are *jakhin*) dugu, baina ez ***eharri*, ***ihusi* edo ***ehorri* nahiz ***jahin*; alegia, noizbait **Th > h* izan bada, —eta baldin T > Th-ren ondorio ez badira hemen AE-kotzat jotzen diren Th horiek—, erregela hau baino lehen agortua zen aditzak sortzeko sistema zaharra, geroztik ez baita **e-* aurrizkien bitartez enbor berriak sortu. Bidenabar, Lakarra (2014a)-n eman uste dut datu esanguratsurik erakusleetan AE-rako belare bortitzik ez berreraikitzeko: Erronkari (eta Zaraitzu-Aezkoetako nahiz HGN zati bateko) *gau/kau...gori/kori*..., etab. ustez zaharretarik ez da bat ere Ros erronkariarrak Etxart zuberotarrari 1616-17an bidali gutunetako dozenaka adibideetan eta, beraz, geroztiko berrikuntza oso moderatuz hartu behar, ez ikaragarriko arkaismotzat. Aipatu lanean egin gogoetei erants bekie 3. graduko *gura/kura*-ko belarearekikoa: hor ere arkaikotzat hartuko *har-* (nahiz *gar-/kar-*) zaharragoaren garapen argiak izanik?

tez, erreduplikazioa soilik AEZeko ezaugarria genuke eta aurrizkiak, aldiz, bai AEZ eta baita AEMkoak ere, partez bederen. Gainera, gertakari honek lagun lezake **d- > l-* baino are apostu bortitzagoa egiten, «AEZ ***l-*», hots, soinu hau ez zela silaba, erro eta hitz hasieran, baizik eta soilik amaieran (cf. **bel, *dol, hil, *nol, etab.*)³⁸

2.12. Goazen aitzina. *Latz* < **datz* dugu; horren oso hurbileko kide formala da **dats*, ezagutzen dugun familia lexiko zabalenetarik duena (ikus §1.8): alegia, forma biluzia (*lats*) / erreduplikazioa (*adats*) / konposatuaren 2. zatia (*aldats*) / aditz erroa (**e-dats-i*) / kausatiboa (*eratsi, eraatsi* < **e-ra-dats-i*) / aplikatiboa + kausatiboa (**e-da-ra-dats-i*) hurrenez hurren. *Sabel*-enak ez du hainbeste lehiatila betetzen (*beltz* oinarria gehi atzizkia eta *ubel* konposatuaren 2. osagaia soilik) eta **duz* erroak forma soila (*luze*) eta aditz soila (**e-dutz-i*), etab. Ikus litekeenez, familia lexikoetan hitzak batabestearekin zangalatrauan dira eta elkarri eusten diote berreraiketan berebiziko laguntza emanaz (ikus §1.8).

2.13. Bada *sarats*-en egituran (**sa-latz*-enean, hobe) aparteko ikasgai-rik oraindik: aurreko ahapaldietan eman etimologia zuzena bada eta **datz* erro zaharraren *latz* alomorfo modernoaren eratorria bada, **d- > l-* aldaketa aurrizkia erroari erantsi baino lehen jazo da, bestela ***sadats* izango baikeen. ³⁹ Alegia, aurrizkiak ez ezik preposizio batzuk ere bizirik ziren AEMan, erreduplikazioarekin ikusiaren kontrara; hortaz erreduplikazioa aurrizkiak (eta preposizioak) baino lehen fosildua zen.

2.14. Aurreko ondorio honen alde ekar genezake duela zenbait urte (Lakarra 2006b) erakutsia: euskararen historiaurrean ez da soilik ordezkatu ezkerreko morfologia eskubikoaren bitartez, bata higatuaz eta bestea garatuaz (cf. Trask 1977ko lan bikaina): zenbait aurrizki zahar eurak dira aldatu hitz modernoagoen eskubitara. **Gi-*, *za-*, **la-*, **le-* hurrenez hurren **-gi*, *-za*, **-la*, **-le* bihurtu dira (ez **sa-* → *-sa*, ordea), ezinbestean AEMan edo beranduago, ez AEZan, *l-* horien arabera. Honelako fenomenoak somalian, munda hizkuntzetan, edo Australiakoetan aurkitu izan dira, gutxienez (cf. aipatu lanean emandako bibliografia), eta gertakari hau azaltzeko modurik erraxena ere aurreko atalekoaren bidetik doa: migrazioak baino lehen ez aurrizki itsatsi baizik eta preposizio aske izatea.

3. Amaitzeko

Euskarak (zorigaitzez), ahaide ezagunik ez du eta, biderik ohikoena, (hizkuntzen arteko erkaketa), bere historia egiteko antzu eta agorra dugu.

³⁸ Hau lotua da, jakina, §2.14.ean aipatu *la-* → *-la* eta *le-* → *-le* migrazioarekin eta horren data erlatiboki berantiarrekin.

³⁹ *VIV > VrV* AEM eta akitaniera baino geroagokoa da dakigunez (cf. Guiter 1989), baita EBZ baino ere Mitxelenak (1981) eman kronologiari —v-vi. mendeak— lotzen bagatzaizko.

Gertakari honek ez du ezinezko bilakatzen historiaz jardutea inoiz esan izan den bezala, baina bai eskatzen du gainerako hurbilketak ahalik eta gehien lantzea eta fintzea. Hurbilketa hauetarik edozein hizkuntzatan emankorrena lirudikeen barneberreraiketa atzeratua izan da euskalaritzan, bai horretarako beharrezko zen filologia aurrelana ez delako garatu berandu arte eta baita barneberreraiketak oinarri duen teoria linguistikoaren aitzinamendua ere oso mugatua izan delako gure artean.⁴⁰

Alabaina, badira dagoeneko finkatutzat eman ditzakegun historiaurreko zenbait ezaugarri (erreduplikazioa, aurrizkiak) eta aldaketa (**d- > l-*, *T- > D-*, *-n- > -h-*, **h₂/*h₃ > h₁*, aurrizki → atzizki...) eta horiek hurrenkera erlatiboan jar ditzakegu, honela hizkuntzaren geruzak argituz eta kronologia zehaztuaz joateko.⁴¹ Forma kanonikoaren azterketak, hitz-familienak eta gramatikalizazioarenak ere lagun gaitzakete egiteko honetan, eta omenduaren deituraren azterketa baliatu nahi izan dut horren bitartez adibide xume bat eskuratzeko.⁴²

Aipamenak

- Agud, M. & A. Tovar. 1987-1995. *Materiales para un diccionario etimológico vasco (A-orloi)*. ASJUren Gehigarriak. Donostia: 7 lib.
- Arbelaiz, J.J. 1978. *Las etimologías vascas en la obra de L. Michelena*. Tolosa: Kar-daberatz.
- Baldi, Ph. (arg.). 1990. *Linguistic change and reconstruction methodology*. Berlin/ New York: Mouton de Gruyter.
- Benveniste, É. 1935. *Origines de la formation des noms en indo-européen*. Paris: Maisonneuve.
- Benveniste, É. 1969. *Le vocabulaire des institutions indo-européennes. I. Économie, parenté, société; II. Pouvoir, droit, religion*. Paris: Les Éditions de Minuit.
- Blanco, E. 2014. *Euskal lexikoaren azterketarako: ikerketak Euskara Arkaikoan*. Master amaierako lana, UPV/EHU.

⁴⁰ Mitxelena (1981)-eko ikuspegi aldaketaren oinarri eta ondorio linguistikoak ez dira zehaztu (cf. Lakarra 2014a). Ez da hutsune bakarra kronologian eta periodizazioan. Honi dagokionez, ikus Mounole & Lakarra (argitaratzean) non (Euskara Arkaikoa «1545-1600» datatu beharrean, «1400-1600» egiten den irizpide linguistikoetan oinarrituaz).

⁴¹ Bestelako aitzinamendurik ere izan lezake, ez dakit irabazi ala kalte erantsi gisa: Lakarra (2013c)-n gogoratu bezala, eusk. *adin* : ib. ADIN erkaketa ezerezean gelditzen da Mitxelenak 1.koa **har-din*-etik azaltzean, **hardin* > *adin*-eko aldaketak (**-r > -h*, **h...h > ø...h*, **hC > øC*) AE ondokoak izanik inolako eusk.-ib. batasun baino geroagokoak baitira. Lan horretan eta (2010)-en eman nituen antzeko eragozpen kronologiko gehiago delako erkaketa horien aurka.

⁴² §2.10-en aipatu **VC*-ren erreduplikazio faltaz (***lalan*, ***lalar*, ***lulur*, etab.), jakingarrira iruditzen zait *laratz* (hainbat aldaera ditu OEH-ren arabera) dela itxuririk hoberena duena, **latz* > **lalatz* > *laratz* bilakabide baten bidez. Alabaina, bi akats ditu uste honek, larriak biak ere: 1) ez da erraz latz eta *laratz*-en arteko lotura semantikoa antzematzen eta 2) Schuchardtek lehen eta Corominasek gero (apud Agud & Tovar, s.u.) *lares*-ekin lotu zuten (cf. *gazt. lar, llar*), semantikoki nahiz formalki askoz egokiago.

- Campbell, L. 2000. «Time perspective in linguistics». In C. Renfrew, A. McMahon & L. Trask (arg.), *Time depth in historical linguistics*. 2 lib. Cambridge: The McDonald Institute. 3-31.
- Campbell, L. (arg.). 2001. *Grammaticalization. A critical assessment*. (= *Language Sciences* 23/2-2).
- Campbell, L. 2011. «La investigación histórica de las lenguas aisladas, o ¿es raro el vasco?». In J.A. Lakarra, J. Gorrochategui & B. Urgell (arg.), 23-40.
- Campbell, L. 2013 [1998]. *Historical linguistics. An introduction*. Edinburgh U.P. [3. arg.: 2013].
- Casagrande, J.B. 1954-55, «Comanche linguistic aculturation: I-III». *International Journal of American Linguistics* 20, 140-151, 217-237; 21, 8-25.
- Chambon, J.-P. & Y. Greub. 2002. «Note sur l'âge du (proto)gascon». *Revue de Linguistique Romane* 66, 473-495.
- Corominas, J. & J.A. Pascual. 1980-91. *Diccionario crítico etimológico castellano e hispánico*. Madril, Gredos: 6 lib.
- Dimmendaal, G.J. 2011. *Historical Linguistics and the Comparative Study of African Languages*. Amsterdam/Philadelphia: John Benjamins.
- Dixon, R.M. 1977. «Where have all adjectives gone?». [Berrarg. in *Where have all adjectives gone? And other essays in semantics and syntax*. Berlin: Mouton. 1-62.]
- Egurtzegi, A. 2014. *Towards a phonetically grounded diachronic phonology of Basque*. doktore-tesia, UPV/EHU.
- Fischer, O., M. Norde & H. Perridon (arg.). 2004a. *Up and down the Cline - The nature of grammaticalization*. Amsterdam/Philadelphia: John Benjamins.
- Fischer, O., M. Norde & H. Perridon. 2004b. «Introduction: In search of grammaticalization». In Fischer, Norde & Perridon (arg.), 1-16.
- Forni, G. 2013. «Evidence for Basque as a IE language». *Journal of Indo-European Studies* 41, 39-180.
- Fortson, B. W. 2004. *Indo-European language and culture*. Malde/Oxford/Victoria: Blackwell.
- Gómez, R. 1994. «Euskal aditz morfologia eta hitzordena: VSO-tik SOV-ra». In J.-B. Orpustan (arg.), *La langue basque parmi les autres*. Baigorri: Izpegi. 93-114.
- Gorrochategui, J. 1987. «Vasco-céltica», *ASJU* 21:3, 951-960.
- Gorrochategui, J. 1998. *Euskararen historiaurreaz zenbait gogoeta. Algunas reflexiones sobre la prehistoria de la lengua vasca*. UPV/EHUren 1998-99 ikasturteko hasierako hitzaldia. Gasteiz.
- Gorrochategui, J. 2001. «Planteamientos de la lingüística histórica en la datación del euskara», *XV Congreso de Estudios Vascos*. Donostia: Eusko Ikaskuntza. 103-114.
- Gorrochategui, J. & J.A. Lakarra. 1996. «Nuevas aportaciones a la reconstrucción del protovasco». In F. Villar & J. D'Encarnação (arg.), *La Hispania prerromana. Actas del VI Coloquio sobre lenguas y culturas de la Península Ibérica*. Salamanca: U. de Salamanca. 101-145.
- Gorrochategui, J. & J.A. Lakarra. 2001. «Comparación lingüística, filología y reconstrucción del protovasco». In F. Villar (arg.), *Religión, lengua y cultura prerromanas de Hispania*. Salamanca: Ed. Universidad Salamanca. 407-438.
- Gorrochategui, J. & J.A. Lakarra. 2013. «Why Basque is not, unfortunately, an IE language?», *Journal of Indo-European Studies* 41.1-2. 203-207.

- Grace, G.W. 1990. «The “aberrant” (vs. “exemplary”) Melanesian languages». In Baldi (arg.), 155-174.
- Guiter, H. 1989. «Elementos de cronología fonética del vascuence». *ASJU* 23, 797-800.
- Haas, M. 1969. *The prehistory of languages*. The Hague: Mouton Publishers.
- Haspelmath, M. 2004. «On directionality in language change with particular reference to grammaticalization». In Fischer, Norde & Perridon (arg.), 17-44.
- Heine, B. 2003. «Grammaticalization». In Joseph & Janda (arg.), 575-601.
- Heine, B. & T. Kuteva. 2002. *World lexicon of grammaticalization*. Cambridge: Cambridge University Press.
- Henderson, E.J.A. 1976. «Vestiges of morphology in some Tibeto-Burman languages». In Nguyen Dang Liem (arg.), *South-East Asian Linguistic Studies 2. Pacific Linguistic Series C*, no 42. 1-17.
- Hualde, J.I., J.A. Lakarra & R.L. Trask (arg.) 1995. *Towards a history of Basque language*. Amsterdam/Philadelphia: John Benjamins.
- Jackson, K. 1953. *Language and history in Early Britain. A chronological survey of the Brittonic languages 1st to 12th c. A.D.* [Berrarg., W. Gilliesen hitzaurrearekin. Dublin: Four Courts 1994].
- Jacques, G. 2013. «Harmonization and disharmonization of affix ordering and basic word order», *Linguistic Typology* 17, 187-215.
- Janhunen, J. 2007. «The primary laryngeal in Uralic and beyond». *Sámit, sánit, sátne-hámit* (Mémoires de la Société Finno-Ougrienne, 253). Helsinki: Société Finno-Ougrienne. 203-227
- Joseph, B.D. 2001. «Is there such a thing as ‘grammaticalization’?». In Campbell (arg.), 163-186.
- Joseph, B.D. & R.D. Janda (arg.) 2003. *The handbook of historical linguistics*. Oxford: Blackwell.
- Koch, H. 2013. «Is Basque an IE language?». *Journal of Indo-European Studies* 41, 255-267.
- Lakarra, J.A. 1995. «Reconstructing the root in Pre-Proto-Basque». In Hualde, Lakarra & Trask (arg.), 189-206.
- Lakarra, J.A. 1997. «Euskararen historia eta filologia: arazo zahar, bide berri». *ASJU* 31:2, 447-535.
- Lakarra, J.A. 2003. «Forma canónica, etimología y reconstrucción en el campo vasco». *ASJU* 37 (2008an argitaratua), 261-391.
- Lakarra, J.A. 2005. «Prolegómenos a la reconstrucción de segundo grado y al análisis del cambio tipológico en (proto)vasco». *Palaeohispanica* 5, 407-470.
- Lakarra, J.A. 2006a. «Protovasco, munda y otros: reconstrucción interna y tipología holística diacrónica». *Oihenart* 21, 299-322.
- Lakarra, J.A. 2006b. «Notas sobre iniciales, cambio tipológico y prehistoria del verbo vasco». In J.A. Lakarra & J.I. Hualde (arg.), *Studies in Basque and Historical Linguistics in Memory of R.L. Trask* (= *ASJU* XL, 1-2). Bilbo: UPV/EHU. 561-621.
- Lakarra, J.A. 2008a. «Irregularidades radicales y extensiones antiguas vascas: hacia los orígenes del verbo vasco». *eskuizkribua*, UPV/EHU.
- Lakarra, J.A. 2008b. «Aitzineuskararen gramatizarantz malkar eta osinetan zehar». In X. Artiagoitia & J.A. Lakarra (arg.), *Gramatika Jaietan. P. Goenagari Omenez*. *ASJU*ren Gehigarriak LI. Bilbo. 451-490.
- Lakarra, J.A. 2008c. «*Vida con/y libertad*: sobre una coordinación arcaica y la autenticidad de *Urthubiako Alhaba*». *ASJU* 42:1, 83-100.

- Lakarra, J.A. 2009a. «Adabakiak /h/-aren balio etimologikoaz». *ASJU* 43:1-2, 565-596.
- Lakarra, J.A. 2009b. «Forma canónica y cambios en la forma canónica en la prehistoria de la lengua vasca: hacia los orígenes del bisilabismo». *Palaeohispanica* 10, 557-609.
- Lakarra, J.A. 2009c. « $*h_3 > h_1$, $*h_2 > h_1$ eta horiei datzekien zenbait fenomenoaz». *Lapurdum* 13, 2009 [2013an argitaratua]. 247-272.
- Lakarra, J.A. 2010. «Haches, diptongos y otros detalles de alguna importancia: notas sobre numerales (proto)vascos y comparación vasco-ibérica». *Veleia* 27, 191-238.
- Lakarra, J.A. 2011a. «Erro monosilabikoaren teoria eta aitzineuskararen berreraiketa: zenbait alderdi eta ondorio». *FLV* 113, 5-114.
- Lakarra, J.A. 2011b. «Aitzineuskara: egindakoak eta eginkizunak». In A. Sagarna, P. Salaberri & J.A. Lakarra (arg.), *Pirineoetako hizkuntzak: lehena eta oraina* (= *Euskaltzaindiaren XVI. Biltzarra, Iruña 6-10/X/2008*), Bilbo: Iker 26, Euskaltzaindia. 617-694.
- Lakarra, J.A. 2012. «Mailegaketa eta berreraiketa euskararen historiaurrearen ikerketan». In I. Igartua (arg.), *Euskara eta inguruko hizkuntzak historian zehar*. Eusko Jaurlaritza: Gasteiz, 17-74.
- Lakarra, J.A. 2013a. «Monosyllabic root theory and the reconstruction of Proto-Basque: some aspects and consequences». In M. Martínez Areta (arg.), *Basque and Proto-Basque*. Frankfurt: Peter Lang. 173-221.
- Lakarra, J.A. 2013b. «Aitzineuskararen berreraiketa sakonagorantz: forma kanonikoa, tipologia holistikoa, kronologia eta gramatikalizazioa». In R. Gómez, J. Gorrochategui, J.A. Lakarra & B. Urgell (arg.), *KM Katedraren III. Biltzarra (Gasteiz, 8-11/X/2012)*, Gasteiz: UPV/EHU. 274-324.
- Lakarra, J.A. 2013c. «Gramática histórica vasca o vasco-iberismo», *Palaeohispanica* 13, 567-592.
- Lakarra, J.A. 2014a. «Gogoetak euskal dialektologia diakronikoaz: Euskara Batu Zaharra berreraiki beharraz eta haren banaketaren ikerketaz». In I. Epelde (arg.), *Euskal dialektologia: lehena eta oraina*. ASJUren Gehigarriak. Bilbo: UPV/EHU. 155-241.
- Lakarra, J.A. 2014b. «Miscellanea Leizarragaren eta RSen grafia zenbaitez». UPV/EHUko eskuizkribua.
- Lakarra, J.A. (argitaratzeaz). «Hiru hasperen haboro». In R. Gómez & M.J. Ezeizabarrena (arg.), *Eridenen du zerzaz kontenta. Sailkideen omenaldia Henrike Knörr irakasleari (1947-2008)*, Bilbo: UPV/EHU.
- Lakarra, J.A. (prestatzen-1). «Bi, bide eta beren familia». eskuizkribua, UPV/EHU.
- Lakarra, J.A. (prestatzen-2). «Bisilabos (¿proto?)vascos». eskuizkribua, UPV/EHU.
- Lamberterie, Ch. de. 2000. «Problemes sémantiques de la reconstruction en indo-européen». In J. François (arg.), *Théories contemporaines du changement sémantique*. Leuven: Peeters. 109-113.
- Lichtenberk, F. 1985. «Syntactic-category change in Oceanic languages». *Oceanic Linguistics* 24, 1-84.
- Manterola, J. (prestatzen). *Determinazioaren gramatikalizazioa euskaraz*. doktoresia, UPV/EHU.
- Mítxelena, K. 1950. «De fonética vasca: la aspiración intervocálica». [Berrarg., *SHLV*, 190-202.]

- Mitxelena, K. 1957. «Las antiguas consonantes vascas». [Berrarg., *SHLV*, 166-189.]
- Mitxelena, K. 1958. «Introducción [a la edición de Landuchio]». [Berrarg. *SHLV*, II, 762-782.]
- Mitxelena, K. 1963. *Lenguas y protolenguas*. [Berrarg. *ASJU*ren Gehigarriak 20. Donostia 1990.]
- Mitxelena, K. 1964. *Sobre el pasado de la lengua vasca*. Donostia: Ed. Auñamendi. [Berrarg., *SHLV*, 1-73.]
- Mitxelena, K. 1970. «Nombre y verbo en la etimología vasca». [Berrarg. *PT*, 283-309.]
- Mitxelena, K. 1973. *Apellidos vascos*. [3. arg. Donostia.]
- Mitxelena, K. 1974. «El elemento latino-románico en la lengua vasca». [Berrarg., *PT*, 195-219.]
- Mitxelena, K. 1977 [1961]. *Fonética histórica vasca*. [2. arg. emendatua, *ASJU*ren Gehigarriak 4. Donostia.]
- Mitxelena, K. 1977. «Notas sobre compuestos verbales vascos». [Berrarg., *PT*, 311-335.]
- Mitxelena, K. 1979. «La langue ibère». [Berrarg., *Lengua e Historia*, Madril: Paraninfo, 341-356.]
- Mitxelena, K. 1981. «Lengua común y dialectos vascos». [Berrarg., *PT*, 35-55.]
- Mitxelena, K. 1987a. *Palabras y textos* [= *PT*], Leioa: UPV/EHU.
- Mitxelena, K. 1987b. *Orotariko Euskal Hiztegia-Diccionario general vasco*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Mitxelena, K. 1987c. «Rectificaciones y enmiendas [*PT*ren eranskina]». *PT*. 465-492.
- Mitxelena, K. 1988. *Sobre historia de la lengua vasca*, [= *SHLV*], J.A. Lakarra (arg.), *ASJU*ren Gehigarriak 10, Donostia, 2 lib.
- Mounole, C. 2011. *Le verbe basque ancien : étude philologique et diachronique*. doktore-tesia, UPV/EHU, Université Bordeaux Montaigne.
- Mounole, C. & J.A. Lakarra. (argitaratzeaz). «Euskara Arkaikoa (1400-1600)». In J. Gorrochategui, I. Igartua & J.A. Lakarra (arg.), *Euskararen Historia*. Eusko Jaurlaritza.
- Palay, S. 1991 [1932-34]. *Dictionnaire du béarnais et du gascon modernes*. [3. arg.] Paris: CNRS.
- Rey, A. (dir.). 2006. *Dictionnaire historique de la langue française*. Paris: Dictionnaires Le Robert [1. arg. 1992].
- Ringe, D. 2003. «Internal reconstruction». In Joseph & Janda (arg.). 244-261.
- Sagart, L. 1999. *The roots of Old Chinese*. Amsterdam/Philadelphia: John Benjamins.
- Sagart, L. & Xu Shixuan. 2001. «History through loanwords: the loan correspondences between Hani and Chinese». *Cahiers de Linguistique - Asie Orientale* 30, 3-54.
- Sarasola, I. 1984-95. *Hauta-lanerako euskal hiztegia*. Donostia: Kutxa Fundazioa. 9 lib.
- Sarasola, I. 1996. *Euskal hiztegia*. Kutxa Fundazioa: Donostia.
- Sarasola, I. 1997. «Euskal hitz altxorraz». *ASJU* 31:2, 617-642.
- Schuh, G. 2013. «Word families in Hausa». In O.-M. Ndimele, M. Ahmad & H.M. Yakasai (arg.), *Language, literature and culture in a multilingual society. A festschrift for Abubakar Rasheed*. Port Harcourt: M. & J. Grand Orbit Communications. 579-598.

- Trask, L. 1977. «Historical Syntax and Basque Verbal Morphology: Two Hypotheses». In W. Douglass et al (arg.), *Anglo-American contributions to Basque studies: Essays in honor of Jon Bilbao*. Reno. 203-217.
- Trask, L. 1998. «The typological position of Basque: then and now», *Language Sciences* 20, 313-324.
- Uhlenbeck, C.C. 1942, «Les couches anciennes du vocabulaire basque», *Eusko-Jakintza* 1 (1947), 543-581. [G. Lacombe nederlanderatik itzulia.]
- Urgell, B. 2000. *Larramendiren Hiztegi Hirukoitzaren osagaiez*. doktore-tesia, UPV/EHU.
- Zorc, R.D. 1990. «The Austronesian monosyllabic root, radical or phonestheme». In Baldi (arg.). 175-194.